

PRENTSA OHARRA: 2026.03.20

Mende-laurdena du Nantesko FCEN zinema jaialdiaren euskal leihoak

- Euskal leihoaren 25. urteurrenaren karietara, ekitaldi berezia egingo dute 'Elai Alai' zinta klasikoaren emanaldi musikatuarekin eta 'Karmele'-ren aurkezpenarekin
- Euskal zineari eskainitako Fenêtre Basque leihoak zazpina film luze eta laburmetrai erakutsiko ditu aurten
- 'Maspalomas' eta 'El mal' jaialdiaren sail ofizialean, eta 'Todo lo que no sé' lehen lanen kategorian lehiatuko dira, hurrenez hurren
- Guztira 20 euskal ekoizpen pantailaratuko ditu FCEN jaialdiaren 34. edizioak

Donostia, 2026ko martxoaren 18a-. Nantesko Festival du Cinéma Espagnol (FCEN) jaialdiaren baitan egiten den [Fenêtre Basque](#) (Euskal Leihoa) zikloak 25 edizio beteko ditu aurten. Etxepare Euskal Institutuak, Euskadiko Filmategiaren laguntzarekin, eta 'Ça colle au basque' euskal kultura frankofonian ezagutarazteko egitasmopean, sustatzen duen erakusleihu hau Euskal Herritik kanpo aurki daitekeen euskal zinema programazio sendoenetakoa da, eta urtero euskal ekoizpen nabarmenen eta, oro har, euskal zinemagile garrantzitsuenen lanen hautaketa bat proposatzen du.

'Elai Alai' eta 'Karmele', Nantesko operan ikusgai

Euskal leihoak 25 urte bete dituen edizio honen baitan, guztira, **20 euskal ekoizpen izango dira Nantesen martxoaren 21etik 29ra egingo den zinema-jaialdian**, eta euskal zikloaren efemeridea goratzeko, hiriko Graslin operako

antzokian euskal zinema-sorkuntzari eskainiko ekitaldi berezia antolatuko dute martxoaren 25ean, 19:00etan. Lehenik, Euskadiko Filmmategiak Frantziako Zinematekatik berreskuratutako Nemesio Manuel Sobrevilaren **'Elai Alai'** (1938) film dokumentala eskainiko da, Joserra Senperenak lagunduriko zuzeneko piano-emanaldiarekin. Gerraren ondorioz erbesteratutako Gernikako Elai-Alai haur dantza taldeko irudiak eskaintzen ditu zintak, baita Eresoinka abesbatzako kideenak ere.

Filmaren soinurik gabeko pasarte zenbait Joserra Senperenak musikatuko ditu zuzenean, berriaz ondutako konposizioa interpretatuta. Izan ere, Euskadiko Filmmategiak 2012an **'Elai Alai'**-ren hainbat atal sonorizatu egin zituen, ordura arte Frantziako Zinematekaren negatiboak ez baitzuen soinurik batere.

Ondoren, **'Karmele'** filma aurkeztuko da, Asier Altuna zuzendariaren eskutik. 2025. urtean estreinatutako zintak Karmele Urresti eta Txomin Letamendiren bizitzako pasarte batzuk pantailaratzen ditu, horiexek ere gerra-testuinguru bertsuan bizitakoak. **'Karmele'**-k Kirmen Uribe idazlearen **'Elkarrekin esnatzeko ordua'** eleberria du ardatz.

Euskal leihoak 25 urte

25. euskal leihoaren programazioan, gainera, beste zazpi film luze eta Kimuak 2025 programako zazpi film labur proiektatuko dira, baita **'Yakarta'** minisaila ere. Euskal zinemari propio eskainitako zikloa osatzen duten euskal produkzioez gain, euskal zinemak FCEN-ren 34. edizioko beste sail batzuk zipriztinduko ditu.

Fenêtre Basque atalean, honako zazpi luzemetrai hauek ikusi ahal izango dira: Alberto Gastesi zuzendariaren **'Singular'**, zeina etorkizun hurbil batean girotutako zientzia-fikziozko drama den. Nantesko jaialdian izango da Alberto Gastesi zuzendaria. Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren **'La trinchera infinita'**-k Gerra Zibilaren ondorengo diktaduraren itzalak zeharkatutako gizon baten istorioa kontatzen du. Azken hilabeteotan pelikula onenaren Goya saria irabazi duen **'Los Domingos'**, Alauda Ruiz de Azua zuzendariarena, fedea, askatasun pertsonala, familia-itxaropenak eta bizitza-hautuen inguruko tentsioak abiapuntu dituena. Euskal filmografian aztarna utzi

дутен zenbait titulu ere proiektatuko dira, hala nola **‘Ehun metro’**, Alfonso Ungriarena, **‘Hamaseigarrenean aidanez’**, Anjel Lertxundirena, **‘Zergatik panpox’** Arantxa Urretabizkaiak idatzi eleberriaren egokitzapena dena, eta, azkenik, euskal gizartearen memoria eta nortasun kolektiboa uztartzen duen **‘Oraingo izen gabe’**, Jose Julian Bakedanorena.

Euskal film laburrek ere, bestalde, izango dute tokirik aurtengo Nantesko jaialdiko euskal leihoan. Izan ere, euskal zinema-sorkuntzaren parte den Kimuak programaren 2025. urteko film laburrak proiektatuko dira FCENen: Aitor Abioren **‘Dicen que tu padre’**, Lara Izagirrereren **‘El regalo’**, Ekaitz Bertizen **‘Erreka zoko hortan’**, Ainhoa Ordoñezeren **‘Habana industrial’**, Ricardo Del Conderen **‘Las manchas del jaguar’**, Harrotu lleak kolektiboa eta Zine-Laben **‘Sueños de viernes’**, eta Maren Zubeldia eta Silvina Gugliemottiren **‘Ultramarino’**.

Azkenik, Diego San Jose euskal zinemagileak zuzendutako **‘Yakarta’** minisaila ere eskainiko da Nanteseko zinemaldian, egilea bertan izango delarik.

Lehiaketan direnak

Euskal leihoaz gaindi, Nanteseko zinemaldiak beste sail batzuetan ere kokatu ditu euskal ekoizpen zenbait. **Sail ofizialean**, esaterako, **‘Maspalomas’** (Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi) eta **‘El mal’** (Juanma Bajo Ulloa) filmak lehiatuko dira. **‘Maspalomas’** filmak, hain zuzen ere, Goya sarietan bederatzi izendapen lortu zituen, eta film horretan egindako lanagatik aitortza jaso zuen Jose Ramon Soroizek, aktore protagonista onenaren kategorian. Nanteseko jaialdira Aitor Arregi zuzendaria bertaratuko da, hura ere zuzendari onenaren Goya sarirako izendatuetakoa bat, besteak beste. **‘El mal’** pelikulan, bestalde, Juanma Bajo Ulloak drama eta thriller kutsuko istorioa ondu du, errua, indarkeria eta barne-gatazka abiapuntu hartuta. Zuzendaria ere Nantesen izango da.

Lehen film onenaren saria eskuratzeko norgehiagokan, gainera, beste euskal ekoizpen bat aurki daiteke: **‘Todo lo que no sé’** (Ana Lambarri). Lehen film luzea du Lambarri zinegileak eta bere istorioak gazte baten helduarorako trantsizioa du ardatz. Pelikularen aurkezpen emanaldian izango da, halaber, Ana Lambarri.

Jaialdiari buruz

1990ean sortu zen Festival du Cinéma Espagnol de Nantes (FCEN) jaialdiaren helburua da Espainiako Estatuan egindako zinea Frantzian zabaltzea eta horretarako emanaldi zinematografikoez gain ekitaldi ezberdinak antolatzen dituzte jaialdiak irauten duen bitartean: mahai-inguruak, arte erakusketak, kontzertuak, etab. Urtero 27.000 ikusletik gora biltzen ditu jaialdiak, baita kritikari eta industriako profesionalak ere.

Nantes da euskal zinema gehien aintzat hartu eta erakutsi duen Europako hirietako bat. Urteotan, euskal zinemako izen handiak pasa dira bertatik beren lanak aurkeztu eta publikoarekin solasean aritzeko.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

FENÊTRE BASQUE 2025

25 ans de Fenêtre Basque ekitaldia (martxoaren 25ean, 19:00etan)

- ‘Elai Alai’ (Nemesio Manuel Sobrevila, 1938), Joserra Senperenaren zuzeneko piano-konposizioarekin
- ‘Karmele’ (Asier Altuna, 2025), Asier Altunaren aurkezpenarekin

Sail ofiziala, lehian

- ‘Maspalomas’ (Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga, 2025), Aitor Arregi bertan izango da
- ‘El mal’ (Juanma Bajo Ulloa, 2025), Juanma Bajo Ulloa bertan izango da

Lehen film onena, lehian

- ‘Todo lo que no sé’ (Ana Lambarri, 2025), Ana Lambarri bertan izango da

Film luzeak

- ‘Singular’ (Alberto Gastesi, 2025)
- ‘La trinchera infinita’ (Jon Garaño, Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga, 2022)
- ‘Los Domingos’ (Alauda Ruiz de Azua, 2025)
- ‘Ehun metro’ (Alfonso Ungría, 1985)
- ‘Hamaseigarrenean aidanez’ (Anjel Lertxundi, 1985)
- ‘Zergatik panpox’ (Xabier Elorriaga, 1985)
- ‘Oraingo izen gabe’ (Jose Julian Bakedano, 1986)

Kimuak 2025

- ‘Dicen que tu padre’ (Aitor Abio)
- ‘El regalo’ (Lara Izagirre)
- ‘Erreka zoko hortan’ (Ekaitz Bertiz)
- ‘Habana industrial’ (Ainhoa Ordoñez)
- ‘Las manchas del jaguar’ (Ricardo Del Conde)
- ‘Sueños de viernes’ (Harrotu ileak, Zine-Lab)

- ‘Ultramarino’ (Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti)

Beste euskal ekoizpen batzuk

- ‘Yakarta’ minisaila (Diego San José, 2025), Diego San José bertan izango da

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus